



Balio Proposamena

- ★ TMTab tablet bat da, gure hozkailua administratzeko balio duena. Tablet hori programatua dago ondorengo funtzioak egiteko:
 - Aplikazioak hozkailuan produktuak falta zaizkizunean abisatu egiten zaitu (zifrazko kodigo baten bidez zure frigorifikoan dauden produktuak kuantifikatu ditzazkezu eta horretarako produktu bakoitzari kodigo bat jarriko zaio).
 - Aplikazio honekin, produktuak eskaneatzerakoan, produktu bakoitzaren ezaugarriak esaten dizkizu, dieta osasuntsua izateko eta hau lortzeko errezetak gomendatzen dizkizu.
 - Aplikazioak, dieta osasuntsu bat mantentzeaz gain, produktuak falta zaizkizunean abisatzen zaitu, eta horrekin denbora aurrezten duzu. Horrez gain, erosotasuna ere irabazten duzu erabilera horrekin.
- ★ Gure produktua teknologiaren ezagutza duten pertsonentzako zuzenduta dago. Bezeroa guri ordaintzeko prest egongo da, izan ere, teknologia berrien erabilera gaur egun oso aurreratua dagoelako eta horrez gain, dirua ere aurrezten da horrekin, eta lehen esan bezala erosotasuna irabazten da.
- ★ Merkatuan beste hainbat produktu antzeko aurkitu ditzakegu, baina gure produktuak zure hozkailua administratzeaz arduratzeaz gain dieta osasuntsu bat mantentzeko aholkuak, errezetak, antzeko produktu merkeagoak eta zuk erosten dituzun produktuen eskaintza adierazten dizkizu.
- ★ Gure produktuaren logoa hau da:



→

Aurkeztuko dugun produktuan, berritasunaren eta prestazioen arabera TM Tabek teknologia berrien erabilera aurkezten du eta horrek teknologia berrien ezagutza dutenentzako egokia da. Horrez gain, gure produktuak pertsonalizazioa ere eskaintzen du, izan ere, gure tabletean eskaintzen den aplikazioa bakoitzak behar dituen produktu eta errezetak pertsonalizatuak daude.